



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

BILBOKO ERCILLA KALEKO 13. ZENBAKIAN KOKATUTAKO ERAIKINEKO LAU SOLAIRUAK EUDELeKO IDAZKARITZA BERRIRAKO ZAHARBERRITZEKO PROIEKTURAKO LEHIAKETA ETA BETEARAZI BEHARREKO OBRAKO ZUZENDARITZARAKO, KALITATEAREN KONTROLERAKO ETA SEGURTASUN ZEIN OSASUNAREN ARLOKO KOORDINAZIORAKO OSTEKO LAGUNTZA TEKNIKOAZ LIZITATZEKO OINARRIAK, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO EPAIMAHAIKIAK ESKU HARTUKO DUELA KONTUAN HARTUTA.

1.- DEIALDIA EGITEN DUEN ERAKUNDEA

Lehiaketa honetarako deialdia egiten duen erakundea EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA (EUDEL) da.

Lehiaketa honen inguruko gutun guztiak helbide honetara bidali beharko dira:

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
Zabalgune plaza 5
48009 - Bilbo (Bizkaia)
Telefonoa: 944.23.15.00 eta Faxa: 944.24.39.47
Posta elektronikoa: landaburu.jl@eudel.eus

Kontsulta teknikoei EHAEOKo langileek erantzungo diote posta elektroniko honen bidez, Idazkaritza Teknikoaren eginkizunak beteko ditu-eta: decanatoconcursos@coavn.org

Lehiaketarako agiri guztiak Kontratugilearen Profilean egongo dira eskuragarri (<http://www.eudel.eus>) argitaratzen diren unetik bertatik, eta edozein interesdunek kontsultatu ahal izango ditu askatasunez. Agiriak webgunetik jaisteko zailtasunik edukiz gero, agiri horiek Lehiaketako Idazkaritzari eskatu ahal izango zaizkio, eta hiru (3) eguneko epean bidaliko dira eskaera jasotzen denetik hasita.

Deialdia egiten duen erakundeak ez du inolako erantzukizunik izango bidalketen kalte-galerengatik ordainerako erreklamaziorik eginez gero.

2.- HELBURUA

Ideien Lehiaketa hau sustatzea, bere bideragarritasun tekniko eta ekonomikoarengatik epaimahaikideen ustez EUDELeKO Idazkaritza berriaren proiekturako egokiena den proposamena hautatu ahal izateko.

Proposamen irabazlea hautatzean, proiektua idazteko laguntza teknikoa ere kontratatuko da, instalazioetarako proiektu partzialak eta Jardueragatiko Lizentzia lortzeko beharrezkoak diren proiektuak barne, baita obren betearazpenerako zuzendaritza fakultatiboa, zuzendaritza teknikoa, kalitatearen kontrola eta segurtasun zein osasunaren arloko koordinazioa ere.

Honako hauxe da premien gutxieneko programa:

- EUDELen erabilera eskusiborako ahalik eta igogailu zabalena jarriko da beheko solairutik hirugarren solairuraino, eta soinu-inpaktu ahalik eta txikiena izango da. EUDELen erabilera eskusiborako eskailera jartzea ere balioetsiko da.

- Zaharberrituta dagoen beheko solairuan, honako gai hauek aztertzea proposatzen da: berokuntza-sistema, harrera-lekua, hormen kapilaritateak, fekalen kutxatilen ustezko lekualdaketa eta proposatutako beste edozein hobekuntza (banaketa, sarbidearen kontrola, erabilerak...).
- Ahal dela, elkarteko langileak bi solairutan egongo dira banatuta, eta, gaur egun, 20 lagun dira. Dena dela, 30 lagunentzako eremua diseinatzea ere proposatzen da, etorkizuneko ustezko premiei ere aurre egin ahal izateko. Honako hauxe egon behar da bertan: erabileran anitzeko bilera-gelak, gutxi gorabehera 6 diren lantoki tekniko haien bulegoarekin eta zuzendaritzako 2 lantoki haien bulego eta bilera-mahaiarekin. Eremuak argiak izango dira.
- Ahal dela, solairuetako bat ordezkari itzulia instituzionalerako leku moduan proposatu beharko da, eta bertako gela betearazleko mahaiak kontu-kontuan hartu beharreko ezaugarriak eduki beharko ditu.

Gordetzea komeni den mahai-sorta bat dugu, honako neurriekin:

625 cm luze X 50 cm zabal (aulkiak, 55x55 cm)

275 cm luze X 127 cm zabal

330 cm luze X 120 cm zabal

Honako arlo hauen inguruko proposamenak ere aztertuko dira: patioak, fatxadak, balkoiak, forja-lana eta elementu apaingarriak.

Edozein arlotako sistema berritzaileak eskaintzen dituzten proposamenak balioetsiko dira; esate baterako, edateko uraren gune bat 4-6 lantokiko.

Agerikoa denez, zaharberrikuntza osoan, erabateko irisgarritasuna eskaini beharko zaie edonolako desgaitasuna dutenei.

Arreta handiz aztertu beharko da eraikinaren egitura, forjatuetako bat indartuta dagoelako gaur egun eta konpondu beharreko desnibelak daudelako gainerakoetan.

Azkenik, eraikinean bertan pertsona partikularrak ere bizi direnez, behar besteko neurriak hartuko dira sortu daitezkeen jarduera gogaikarriak eta inpaktuak murrizteko. Deialdia egiten duen erakundearen ustez egokia izanez gero, idazketa-taldea erkidegoaren bileretara joan beharko da proiektua azaltzeko.

Fase guztien kronograma aurkeztuko da, eta obrek zenbat iraungo duten ere adierazi beharko da bertan. EUDEL-en iritziz, obrak 2018ko abendurako egon beharko dira amaituta, eta luzapena 6 hilekoa izango da gehienez ere.

Edonola ere, proposamen bideragarria izan beharko da, hau da, Bilboko Udaleko Hirigintza Sailak onartzeko modukoa.

Lehiaketaren helburuaren gehienezko prezioa 750.000,00 euroko PEMekoa izango da (BEZik gabe).



Alde horretatik, deialdia egiten duen erakundeak kalitateari zein funtzionaltasunari lehentasuna ematen dien proposamena jaso nahi duen arren, proposamen hori berehala gaitzetsiko da betearazpenerako gehienezko prezioaren arabera ez bada.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Proiektuen lehiaketa hau prozedura irekiaren bidez garatuko da modu anonimoan eta bi fasetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko (SPKLTB) 184.188. artikuluetan zehaztutako arau berezien arabera. Gainera, honako hauexen arabera arautuko da aurrean aipatutako legearen aurkakoa ez den guztian: oinarri hauek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategina bera eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Araudi Orokorra. Haien ordeztuz, zuzenbide administratiboko gainerako arauak ere ezarriko dira; eta, besterik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

4.- PUBLIZITATEA

Lehiaketarako deia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako iragarkiaren bidez egingo da.

Kontratugilearen Profilean argitaratuko da (<http://www.eudel.eus>), SPKLTBko 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Deialdiaren argitalpenaren eta esleipenaren ondorioz sortutako gastu guztiak deialdia egiten duen erakundearen konturakoak izango dira.

5.- LEHIATZAILEAK

Parte-hartzaile fisiko edo juridikoek, arkitekto-titulua izan beharko dute, eta, horrez gain, ezin izango dira kontratatzeke inolako bateraezintasun edo debekuean egon. Jarduteko legezko ahalmena duten tituludunak izango dira kasuan kasuko titulua dutenak: espainiarra, legearen arabera aitortzeko modukoa (Europar Batasuneko tituluak) edo homologatuak.

Eskatutako baldintzak betetzen dituztenek banan-banan edo diziplina anitzeko taldeetan parte hartu ahal izango dute. Era berean, baldintza berberetan ere parte hartu ahal izango dute lehiaketaren helburuarekin bat datozen xede sozialak dituzten pertsona juridikoek, betiere, taldeko zuzendaria eta lanak zuzentzen dituen arkitektoentzako tituluduna bada.

Parte-hartzaile fisiko edo juridiko bakoitza talde bakarreko kidea baino ez da izango, titular moduan edo laguntzaile moduan, eta proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du (aldagairik gabe). Puntu hori bete ezean, bere partaidetzapeko proposamen guztiak gaitzetsiko dira.

Taldekide bakar bat ere ez da administrazio publikoekin kontratatzeke bateraezintasun edo debekuean egongo. Horretarako, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Era berean, epaimahaikideekin bigarren mailara arteko ahaidetasuna, odolkidetasuna, ezkontza-ahaidetasuna eta zerbitzu profesional partikularra dutenek ere ezin izango dute parte hartu.



Proposamen irabazleak 2 faktoreri begira antzeko lanetan esperientzia dutela egiaztatzen duten langileak atxiki beharko ditu taldera: gutxi gorabehera antzeko antzinatasuna (100 urte) duten eraikinen zaharberrikuntza eta zuzkidura-ekipamendua.

6.- FASEAK ETA EPEAK

Lehiaketa bi fasetan garatuko da: ideien lehenengo fasea eta aurreproiektuaren mailako bigarren fasea.

1. faseko proposamenak (Ideien Lehiaketa) aurkezteko gehienezko epea 3 astekoa izango da lehiaketa EHAAan argitaratzen denetik hasita.

Ez da izena aldeztu aurretik eman beharko.

Kontsultak egiteko epea lehiaketa argitaratzen denetik hasi eta proposamenak aurkezteko azken egunaren aurretiko hiru lanegunetara arte egongo da zabalik. Kontsulta horiek idatziz egin beharko dira; eta, ahal dela, posta elektronikoz: decanatoconcursos@coavn.org

Galde-erantzunen zerrenda modu anonimoan argitaratuko dira lehiaketaren webgunean, eta epaimahaiari eratzten denean emango zaizkio oinarri guztiekin batera.

Proposamenak aurkeztu baino lehen, aurretiazko bisitaldi teknikoa egingo da, eta Kontratugilearen Profilean iragarriko da bere garaian.

Hasiera batean eta beharizanagatik aldaketarik egon ezean, bisitak uztailaren 4an eta 11n egingo dira, 09:30ean, Bilboko Ercilla kaleko 13. zenbakian.

Gehienez ere bi (2) lagunek parte hartu ahal izango dute taldeko, eta bertaratu egingo direla baieztatu beharko dute aldeztu aurretik honako posta elektronikoa honetan: landaburu.jl@eudel.eus

Proposamena (aurreproiektua) aurkezteko epea 3 astekoa izango da gutxienez, parte-hartzaile guztiei lehenengo faseko emaitza jakinarazten zaienetik eta epaimahaiaren akta lehiaketako webgunean argitaratzen denetik hasita.

Proiektua idazteko epea 9 astekoa izango da, proposamen irabazlearen berri ematen denetik hasita. Bestetik, obrako zuzendaritzak obrak beste iraun beharko du, eta, epe horretan, obrako azken agiriak aurkezteko bi aste erantsi beharko dira.

7.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Lehiaketarako deia egin duen erakundeak proposamenak aurkezteko beharrezko dokumentazio editagarria emango du.

Honako bi fase hauek izango ditu osagai:

- Lehenengo faseak (ideien lehiaketak) ideiak hautatzea izango du helburu.

Hautatutako proposamenen kopurua 3koa izango da gutxienez; eta 5koa, gehienez. Proposamen horiei bigarren fasean parte hartzeko gonbita egingo zaie (publizataterik gabeko prozedura negoziatuan).

- Bigarren faseak (aurreproiektuak) esleituko den proposamena hautatzea izango du helburu.

1. FASEA.-Ideen lehiaketa

Ideen lehiaketako lehenengo faserako aurkeztu beharreko agiriak pakete bakarrean aurkeztuko dira, eta lelopean itxitako bi gutun-azal sartuko dira bertan. Gainera, A eranskinetako ereduaren araberrako agirien zerrenda ere sartuko da barruan.

1. gutun-azala. 1. fasea: identifikazioa eta agiri administratiboak (itxita eta, kanpoaldean, lehiatzaileak aukeratutako leloa eta, era berean, komunikaziorako e-mail anonimoa jarrita, honako leloaren bidez: adib.: lema@gmail.com):

- a) Agirien edukia, A eranskinetako ereduaren arabera.
- b) Parte hartzeko eskabidea, B eranskinetako ereduaren arabera. Lelopeko komunikaziorako e-posta anonimoa zein den ere adierazi beharko da (esate baterako, leloa@gmail.com).
- c) Zenbait pertsona fisikok edo juridikok osatutako taldeek edo talde mistoek C eranskinetako ereduak aurkeztu beharko dute behar bezala beteta.
- d) D eranskinetako ereduaren araberrako erantzukizunpeko adierazpena, arkitekto-titulua dutela eta Espainiako lurraldean lanbidea garatzeko ahalmena dutela egiaztatzeko.
- e) E eranskinetako ereduaren araberrako erantzukizunpeko adierazpena, langileen arloan ezarriko beharreko hitzarmenari dagokionez.

2. gutun-azala. 1. fasea: agiri teknikoak (itxita eta lehiatzaileak aukeratutako leloa kanpoan jarrita):

Arkitekto edo talde lehiatzaile bakoitzak bere proposamenaren ale bat aurkeztuko du DIN A-3 formatuan, eta honako hauxe agertu beharko da bertan:

- a) Gehienez ere DIN A-4 formatuko bost (5) orri dituen memoria, paperean:

Zehatz-mehatz azaldu beharko da zein den proposatutako irtenbidea, honako kapitulu hauek kontuan hartuta:

1. Ezarri beharreko irtenbidearen azalpena.
2. Elementu arkitektonikoen eta instalazio berezien azalpena.
3. Erabilitako akaberetako materialen azalpena.
4. Higiezinarekiko integrazio energetiko, funtzional eta egiturazkorako proposamenaren azalpena.
5. Kostu guztiaren balioespen zenbatetsia.

- b) Gehienez ere DIN A-3 formatuko bi (2) orritan egindako azalpen grafikoa, egindako proposamenaren erakusgarri.

2. FASEA.-Aurreproiektua

Proposamen izangaiak hautatutakoan, 3 asteko epean aurreproiektua aurkezteko gonbita egingo zaie.

1. gutun-azala edo paketea. 2. fasea: agiri teknikoak (itxita eta lehiatzaileak 1. fasean aukeratutako lelo berbera kanpoan jarrita).

PANELAK

DIN A-2 formatuko bi (2) panel aurkeztuko dira euskarri zurrunean (luma-kartoia). Proposamena behar bezala azaltzeko asmoz proiektugilearen ustez beharrezkoak diren plano guztiak aurkeztuko dira, eta, hala badagokio, aurkezpen askerako tekniken zein grafismoen bidez eraikinarekiko lotura azaltzen dutenak ere bai. Planoak eskala zehatz eta arruntean irudikatuko dira (1/100 eskalako oinplanoak), eta eskala grafikoa ere hartu beharko da kontuan. Proposamena azaltzen duten infografiak, perspektibak edo beste edozein adierazpide grafiko ere onartuko dira. Agiri grafiko eta idatzi guztiak DIN A-2 formatuko bi (2) panel horietan agertuko dira, eta ezin izango da agiri gehigarri gehiago aurkeztu.

CDan AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Panelak .pdf edo .jpg formatuetan erreproduzitzeko CDa aurkeztuko da (leloaren izena zein panelaren zenbakia jarriko dira, ez dira 5na MB baino handiagoak izango eta gehienezko bereizmena 300 dpi-koa izango da).

2. gutun-azala edo paketea. 2. fasea: proposamen ekonomikoa (itxita eta lehiatzaileak 1. fasean aukeratutako lelo berbera kanpoan jarrita).

ORDAINSARIAK

Proposamen ekonomikoa F eranskinaren arabera aurkeztu beharko da, BEZik gabe, letraz eta zenbakiz eta, hala badagokio, aurrekontuari dagokion jaitzieraren ehunekoa adierazita.

Proposamenak ez dira onartuko haien zenbatekoa orri honetan adierazitako aurrekontukoa baino handiagoa izanez gero.

Lizitatzailerek proposamen bana aurkeztu ahal izango dute.

Proposamen ekonomikoa karaktere argiz edo makinaz idatzita aurkeztuko da, eta ez dira onartuko eskaintza aztertzeko orduan funtsezkoa dena epaimahaiari argi ikusten uzten ez dioten hutsegiteak, akatsak edo marradurak badituzte.

Proposamen honetan adierazitako zenbatekoei dagokienez, zenbakitan adierazitakoei barik letraz idatzitakoei emango zaie lehentasuna.

Lizitatzailerek proposamena sinatu beharko du.

8. PROIEKTUAREN IDAZKETA

Proiektuan EKTko I. zatiko I. eranskinean horretarako aurreikusitako agiriak agertuko dira gutxienez. Hona hemen proiektuko agiri bakoitzean garatu beharreko elementuak:

1.- Memoria

Memorian bertan, EKTn aurreikusitakoa, PDFn atxikitako fitxak eta aurreko paragrafoetan adierazitakoa ez ezik, honako hauxe ere garatu beharko da:

- Proiektuaren helburua eta irismena
- Aurrekari administratiboak
- Bete beharreko premiak
- Lursailaren eta kokagunearen baldintzak
- Aukeratutako irtenbidea eta obraren azalpena
- Bideragarritasun-azterketa

2.- Planoak

Agiri grafikoetan, aukeratutako irtenbidea azaltzen duten planoak egongo dira, eta behar bestekoak izan beharko dira zer obra betearaziko diren jakiteko. Horrez gain, lehen aipatutako gutxienekoak ez ezik, honako hauexek ere atxiki beharko dira:

- Informazioari eta egoerari buruzko planoak hiri-multzoari dagokionez
- Zuinetaren planoak
- Elementu guztiak azaltzen dituzten proiektu eta xehetasun planoak:
 - Oinplanoak
 - Altxaerak
 - Sekzioak edo xehetasunak
- Instalazio guztien planoak
- Erasandako zerbitzuak:
 - Erasandako zerbitzu guztien gaur egungo egoeraren berri ematen duen oinplano orokorra
 - Erasandako zerbitzu guztien gaur egungo eta etorkizuneko egoeraren berri ematen duen oinplano orokorra

3.- Baldintza Teknikoen Orria

Baldintza Teknikoen Orrian, neurketei, kalitateei eta betearazpeneko materialen beste ezaugarri batzuei buruzko azalpen guztiak agertuko dira. Izan ere, planoetan jarri ezin direnez, zein diren adierazi beharko dira elementu bakoitzaren azalpen osoari begira. Era berean, obrak neurtzeko eta ordaintzeko irizpideak nahiz baldintza orokorrak ere azaldu beharko dira. Behar besteko luzera izango du, egin beharreko obra osatzen duten elementuen baldintza partikular guztiak zehazteko.

Atal teknikoaren barruan, aurrekontua osatzen duten kapitulu guztiak hartu beharko dira kontuan.

4.- Aurrekontua

Honako eskema hau garatuko da aurrekontuan:



- Neurketak
- Zatikaturako prezioak
- Kontu-sail altxatuak
- Neurketak zatikatu eta kontu-sail bakoitzeko neurketa-irizpidea azaltzen duen aurrekontua
- Aurrekontu orokorra eta kapitulurako laburpena

Proiektuko obra-unitateen neurketa guztiak agertu beharko dira.

Zatikaturako prezioetan, kasuan kasuko obra-unitate guztiak agertu beharko dira euren arloan. Obra-unitate horiek azaltzeko orduan, argitasunarekin bateragarria den ahalik eta zehaztasun handiena erabili beharko da. Gainera, prezio bakar moduan zenbatuko da xede funtzional homogeneo eta osoa duten elementu edo azpimultzoei dagozkien batura, eta osagai izan behar dituzten elementuen zehaztapen zehatuak azalpenaren edo izenaren eranskin moduan atxikiko dira.

Betearazi beharreko kontu-sailak neurtzeko irizpideak azaldu beharko dira ezinbestean.

Justifikatu beharreko kontu-sail altxaturen bat derrigorrean adierazi behar denean, kontu-sail altxatu horren osagaiak izan daitezkeen unitateen aleko prezioak zein diren jarri beharko da, modu haztatu eta justifikatua balioetsi ahal izateko.

Honelaxe zehaztuko da kontratuaren aurrekontua (BEZ barne):

- A.- BETEARAZPEN MATERIALAREN AURREKONTUA. 750.000 €.
- B.- GASTU OROKORRAK (A-ren gaineko %13). 97.500 €.
- C.- MOZKIN INDUSTRIALA (A-ren gaineko %6). 45.000 €.
- D.- BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA ((A+B+C)-ren gaineko %21). 187.425 €.
- E.- KONTRATUAREN AURREKONTUA (A+B+C+D). 1.079.925 €.

5.- Segurtasun eta Osasun Plana

Bertan, prebentzio eta babes teknikorako neurri zehatzak eta egokituak agertu beharko dira, obra egitean segurtasunaren, osasunaren eta laneko arriskuaren prebentzioaren arloko baldintza guztiak bete daitezzen.

6.- Kalitatea Kontrolatzeko Plana

Honako eskema honen arabera garatuko da:

- Materialen onarpenaren kontrola
- Obraren betearazpenaren kontrola
- Amaitutako obraren kontrola

7.- Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak Kudeatzeko Azterketa

Bertan, obra egin bitartean kontratistak Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinaren arloan (EEH) bete beharko dituen helburuak zein diren azaldu beharko da.



8.- Proiektuaren izaerari eta ezaugarriei begira kontuan hartu beharreko legezko edo arauzko arauetan aurreikusitako edozein agiri

Obren betearazpenerako beharrezkoak diren agiri edo proiektu guztiek behar besteko oniritziak eta izapideak eduki beharko dituzte.

Aukeratutako irtenbide material eta akaberen kalitatea haien erabileraren arabera izango da, eta funtzionalak zein iraunkorrak ere izango dira, betearazitako obraren artapena ahalik eta txikiena izan dadin.

Erraz ordezkatzeko asmoz, funtzionalak eta iraunkorrak ez ezik, ekoizteko edo hornitzeko orduan arazorik eskaintzen ez duten seriekoak eta mekanismoetakoak ere izan beharko dira (zoru eta hormetako estaldurak, burdineriak, eskulekuak, ontziak...).

AGIRIAREN adostasun teknika lortu ostean, proiektuaren bi ale oniritzi aurkeztuko dira, baita udal-aplikazioekin bateragarriak diren formatuetan irudikatutako agiri guztien bi CD edo DVD ere.

Planoak: DWG (Autocad)
Ofimatika: Doc (Word)
Aurrekontuak: Pzh (Presto)

Era berean, agiriaren kopia osoa ere aurkeztu beharko da PDF formatuan.

9. OBRAKO ZUZENDARITZA

1.- Obra zuzentzeko baldintzak

1.1.- Orokorrak

Obrako Zuzendaritza Fakultatiboak kontratatutako obra zuzendu, egiaztatu eta behar bezala garatzen dela bermatu beharko du zuzenean, eta administrazioko ordezkaria ere izango da kontratistaren aurrean.

Bere eginkizunak garatzeko orduan, obrako zuzendariak bere agindupeko laguntzaileak eduki ahal izango ditu, eta euren titulu profesionalen edo jakintza berezien ondorioz sortutako ahalmenen arabera garatuko dute euren zeregina. Guztiguztiek "Obrako Zuzendaritza" osatuko dute.

Kontratistari idatziz emango zaio Obrako Zuzendaritzaren izendapenaren eta obra betearazi bitartean egiten diren aldaketa guztien berri.

Obrako Zuzendaritza garatzeko orduan kontratazio hau arautzen duten Klausula Administratiboen Orria eta Zehaztapen Teknikoen Orria bete beharko dira zehatz-mehatz, baita kontratuaren oinarria diren agiri teknikoak ere. Bestetik, lanen jarraipenerako eta kontrolerako izendatutako zerbitzuko langileek idatziz emandako jarraibideak ere bete beharko dira, eta indarreko legeriaren arabera administrazio kontratugileak interpretaziorako, aldaketarako eta ebazpenerako dituen ahalmenek ere men egin beharko die esleipendunak.

Obrako Zuzendaritzaren egintzek edo hutsegiteek obren garapen egokia edo lan-programen betearazpena kolokan jarri edo eragozten dutenean, administrazio



kontratugileak neurri zehatz bezain eraginkorrak hartzeko eskatu ahal izango dio, berriro ere kontratua behar bezala betearazi dadin.

Obrako Zuzendaritzagatiko ordainsariak esleipendunak eskainitako prezioaren arabera ordainduko dira, eta ez da larregizko obragatiko edo obraren aldaketagatiko ordainsariak jasotzeko inolako eskubiderik egongo, betiere, kontratazio-organoak alde zurretik agindu eta baimendu ez baditu.

Obrak zenbait fasetan garatuz gero, fase bakoitzeko ordainsariak bertan aipatutako jarduketan Betearazpen Materialerako Aurrekontuari dagozkionak izango dira, eta modu proportzionalan kalkulatuko dira esleipendunak proposatutako ordainsarien eskaintza orokorraren arabera.

Obrako Zuzendaritzak kontratistak bere agirietan aurkeztutako plangintza balioetsia onetsi beharko du, eta, obrako zuzendaritzaren eta proiektuko plangintzaren ideiarekin bat ez badator, behar besteko aldaketak egin beharko dira.

Administrazio kontratugilearen adostasunaz, Obrako Zuzendaritzak behar besteko prozedura ezarri beharko du, obrak eta zuinketa egin bitartean sortu daitezkeen agindu, jarraibide, komunikazio eta gorabehera guztiak agiri batean agertu daitezzen. Horrez gain, aginduen eta asistentzien liburua ere egon beharko da obran.

Prozedura horren bidez, suposamendu bakoitzaren inguruabar objektiboen berri emango da, baina, horrez gain, obrako kontratistak eta zuzendaritza fakultatiboak ohar horien berri dutela eta haiekin ados daudela ere egiaztatu ahal izango da.

Zerrenda honetan aipatzen ez diren beste batzuei inolako kalterik egin gabe, honako eginkizun hauek bete beharko ditu obretako segurtasuna eta osasuna koordinatzen dituen zuzendaritza fakultatibo moduan:

- a) Zuzenean edo bere agindupeko langileen bidez, kontratistari kontratuko baldintzak bete ditzala eskatzea.
- b) Obrak onartutako proiektuaren edo, hala badagokio, bertan egindako aldaketen arabera zehatz-mehatz betearazten direla eta lan-programa betetzen dela bermatzea.
- c) Administrazio kontratugileak eskatuta, obren betearazpenaren kontrataziora aurkeztu diren lizitatuzaileen agiriak eta eskaintzak informatzea.
- d) Obrak zuzentzea eta, horretarako, aurretiaz zehaztutako obra-bisitaldi guztiak egitea, behar bezala garatzen direla bermatzeko eta dokumentatzeko.
- e) Obrako talde tekniko fakultatiboa betearazpenerako proiektuko arlo teknikoan, ekonomikoan eta estetikokoan koordinatzea eta behar bezala garatzeko moduko neurriak hartzea. Horretarako, obran egin beharreko egokitzapenak, xehetasun osagarriak eta aldaketak ezartzea, Klausula Administratibo Partikularren Orrian xedatutakoaren eta jabetzaren eskakizunen araberrakoak izan beharko direla kontuan hartuta.
- f) Obren betearazpenaren kontratazioan zehaztutako epe eta baldintzetan, kontratistak egindako obra-unitateen zenbatekoa ziurtatzea. Obren ziurtapenak hilabete bakoitzeko lehenengo asteartea baino lehen aurkeztuko dira, eta obrako zuzendaritzak nahiz eraikitzaileak egin eta adostuko dituzte udaletxean aurkeztu baino lehen. Gero, bertan informatuko dira, kontratazio-organoak onartu ditzan. Ziurtapenak obraren benetako neurketaren arabera egingo dira aurkezteko orduan, eta proiektuan adierazitako prezioa hartuko da kontuan.

Ziurtapenaren laburpen orokorrean, gastu orokorrak, mozkin industrialak eta jaitsiera ezarri beharko dira.

Obrako zuzendaritzaren iritziz, proiektuan aurreikusitako eta betearazitako kontu-sailen ehunekoak modu justifikatuan ziurtatu ahal izango dira nekez balioetsi daitezkeenean, betiere, udaleko zerbitzu teknikoek ustez kontzeptua eta ehunekoa zuzenak badira. Obraren betearazpenean, proiektuan azaldutako kontzeptuak eta unitateak kontuan hartuko dira ezinbestean. Edozergatik kontu-sail berriak agertzen badira, kalitateak aldatzen badira, kontu-sailak edo fabrika aldatzen badira edo proiektuan azaldutako neurketa handitzen bada, aldeaz aurretik jakinaraziko zaizkie udaleko zerbitzu teknikoek, eta ez dira hark onartu arte betearaziko.

g) Hilean behin, gutxienez, eta beharrezkoa denean, obrak nola doazen eta aldaketarik egin behar den azaltzea EUDELI, kasuan kasuko araubide juridikoa kontuan hartuta.

Hileko txostenetan, obraren egoera orokorraren eta obrako elementu bereizgarrien koloretako argazkiak erantsi beharko dira, baita obrarako bisitaldi bakoitzean egindako akten kopia ere.

h) Obretako enpresa esleipendunak azpikontratetan proposatu ditzakeen aldatzen berri ematea EUDELI.

i) Obraren onarpenean parte hartzea, legearen edo arauen arabera xedatutakoaren arabera.

j) Obrak onartzen direnetik edo haien inguruko adostasuna adierazten denetik hasita, obraren azken likidazioa egitea bi hileko gehienezko epean.

k) Hala badagokio, aldatutako proiektuak edo aurrekontuak idaztea.

l) Administrazio kontratugileak obra berriaren adierazpenetarako, baimen administratiboetarako... eskatutako agiriak aurkeztea.

m) Proiektuko Zehaztapen Teknikoen Orrien arabera bere erabakipekoak diren baldintza teknikoak zehaztea.

n) Planoen interpretazioari, materialen baldintzei eta obrako unitateen betearazpenerako baldintzei begira sortu daitezkeen gai tekniko guztiak ebaztea, betiere, haien ondorioz kontratuko baldintzak aldatzen ez badira.

o) Larrialdietan, obrako zuzendariak obra-unitateak garatzeko agindua eman ahal izango du, betiere, ezinbestekoak badira betearazitako obra iraunkorra dela bermatzeko edo hirugarrenentzako berehalako kalteak ekiditeko. Hori dela eta, obretako kontratistak behar besteko baliabide tekniko eta pertsonalak jarri beharko ditu eskuragarri. Larrialdia sorrarazi duena desagertutakoan, zuzendariak berehala jakinaraziko dio administrazio kontratugileari.

p) Obra amaitutakoan, "Obraren Amaiera" agiria aurkeztu beharko da, eta honako hauxe agertu beharko da bertan: obra zibilaren nahiz instalazioen behin betiko planoak; obraren betearazpenean erabilitako elementuen zerrenda xehatua, ekoizleak, banatzaileak eta jartzaileak edo bertan parte hartu duten azpikontratatik adierazita; egindako saiakuntzak eta probak (obra garatu bitartean eta amaitzean); eta haien kalitateari buruzko ziurtagiriak. Obraren amaierako agiri horretan, obrako datu eta gorabehera nabarienen berri ematen duen azken txostena ere erantsi beharko da.

q) Administrazio kontratugileari instalazioak erabiltzeko eta artatzeko eskuliburuak eta beharrezkoak diren agiri tekniko guztiak ematea, betearazitako obrak behar bezala erabili eta artatu ahal izateko. Agiri horiek, gainera, Eraikinaren Liburuan gauzatuko dira.

r) Autobabeserako plana egitea eta aurkeztea, honako hauxe ezartzeko asmoz: arriskuen ebaluazioa, babeserako baliabideak, larrialdien antolakuntza eta

ezarpenerako zein artapenerako programa. Era berean, kasuan kasuko eranskinak ere aurkeztu beharko dira ostean ezarri ahal izateko.

s) Eraikuntzako obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko indarreko legerian xedatutakoa betetzea eta betearaztea.

t) Prebentziorako eta segurtasunerako printzipio orokorren ezarpena koordinatzea.

u) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek prebentziorako ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez ezartzen dituztela bermatzeko.

v) Haren onarpenari begira, obraren faseko segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak kontratistak segurtasunerako eta osasunerako egindako planaren berri emango du eta, hala badagokio, bertan egindako aldaketen berri ere bai.

Horrez gain, planaren edo haren aldaketen kopia aurkeztu beharko du txosten bakoitzarekin.

w) Behar besteko neurriak hartzea, obran baimendutako pertsonak bakarrik sartzen direla bermatzeko.

1.2.- Partikularrak

EUDELek bere garaian kontuan hartu ditzakeen eskakizun funtzionalen eta aukera-arrazoien arabera, obrak faseka betearazten badira, betearazpenerako proiektu orokorraren separatak idatzi beharko dira fase bakoitzeko obrak esleitu baino lehen.

Horri dagokionez, separata horien idazketa esleitutako obrako zuzendaritzako lanetan kontuan hartuko denez, ez da ordainsari berririk sortuko.

Idatzi beharreko separata bakoitza betearazpenerako proiektu osoa izango da berez, bertako zehaztapenek unean-unean ezarri beharreko arautegia errespetatuko dute eta EUDELek edota erakunde interesdunek egokitzen jotzen dituzten irizpideak ere hartu beharko dira kontuan. Horri dagokionez, oro har, idatzi beharreko separatetan, unean-unean indarrean dauden arauen eta araudien arabera eguneratu beharko da hasierako proiektua.

Obrak amaitu eta onartutakoan, Zuzendaritza Fakultatiboak betearazitako obren jarraipena egingo du esleipendunak horretarako eskaintako BERMEALDIAN, eta bertan gertatu daitezkeen gorabehera guztien berri emango dio EUDELi, bere eskaintzan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

2.- Obren kontrola eta jarraipena egiteko metodologia

2.1.- Obraren kontrola. Arduraldia eta obrarako bisitaldiak

Obrak eta obren inguruan ezarri beharreko jarduketak guztiak garatzean eta horretarako zehaztutako lanen jarraipena egitean, orri honetan xedatutakoa bete beharko da ezinbestean.

Horri dagokionez, obrak behar bezala betearazten direla eta haien jarraipena zorrotza bezain etengabea dela bermatzeko, Zuzendaritza Fakultatiboak garapen hori kontrolatuko du metodologian eta obra-planean eskaintako arduraldiaren eta bisitaldien araubidearen arabera.



Bisitaldietarako ohiko araubide hori ezarri arren, edozein alderdik eskatuta EUDDEL-en, Zuzendaritza Fakultatiboaren eta obretako enpresa esleipendunaren artean egin beharreko topaketa edo bisitaldi guztietan ere parte hartu beharko da.

Zuzendaritza Fakultatiboak obrarako bisitaldi bakoitzaren akta egingo du, bertaratutakoek berretsi egin beharko dute eta obraren jarraipeneko txostenetan atxikiko da agiri osagarriekin eta, batez ere, argazkiekin batera, obrak zer baldintzatan garatzen diren jakin ahal izateko.

Akta horretan, obraren egoeraren eta gorabehera adierazgarrienen berri emango da. Horrez gain, hartutako erabakiak zein diren azalduko da eta, hala badagokio, erabaki horien ondorioz proiektuko aurreikuspenetan egin daitezkeen aldaketak zein diren ere bai. Akta bakoitzean, obraren argazkiak atxikiko dira, eta akta hori hileroko udalari obraren jarraipenari buruz bidalitako txostenean txertatuko da.

Bisitaldi bakoitza baino 3 egun lehenago, gutxienez, obrako zuzendariak aurreko bisitaldiko akta bidali beharko du, hala badagokio, behar bezala onartu dadin. Obrak amaitutakoan, Obrako Zuzendaritzako lanak fakturatu baino lehen, obraren amaierako agirietako eranskin moduan atxikiko da obrak garatu bitartean egindako akta guztien zerrenda.

10.- ANONIMATUA

Parte-hartzaileek askatasunez aukeratutako lelopean aurkeztuko dira lanak, eta lelo hori agiri guztietan agertu beharko da, epaimahaiak anonimatupean aztertzeo aukera eduki dezan.

Identifikaziorako 1. gutun-azalaren kanpoko aldean, adierazi egin beharko da saritua ez bada lehiatzaileak anonimatuan jarraitu nahi duen aurkeztutako lanak jendaurrean ikusgai jartzen direnean, halaxe eginez gero, eta paperean edo webgunean argitaratzen direnean.

Idazkaritzak jasotako informazioa kudeatu eta aztertzeo prestatuko du, eta bidaltzean proposamenen anonimatua hausten ez dela bermatu beharko du.

Sariren bat jasotzen duten pertsonak edo taldeek ezin izango diote anonimatuari eutsi.

11. - PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Agiriak oinarri hauetan adierazitako ordu eta egunetan aurkeztu beharko dira.

Eskabideak postaz ere izapidetu ahal izango dira, APKLri buruzko Araudi Orokorreko 80.4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Halakoetan, lizitatzzaileek justifikatu egin beharko dute izapidea Correoseko bulegoan egindako data iragarki ofizialean zehaztutako egun eta ordurena dela gehienez ere. Horrez gain, egun horretan bertan, kontratazio-organoari jakinaraziko dio telegramaz, 944.24.39.47 zenbakira bidalitako faxaren bitartez edo helbide honetara bidalitako mezu elektronikoaren bidez: landaburu.jl@eudel.eus

Proposamena baliozkoa izango da iragarkian adierazitako aurkezpen-epareen barruan bidali eta jaso dela egiaztatzen bada eta bidaltzailea zein hartzailea sinesgarritasunez identifikatzen badira. Bi eskakizunak betetzen ez badira, kontratazio-organoak ez du



eskabidea onartuko iragarkian adierazitako epea amaitu ostean. Nolanahi ere, data horretatik 10 lanegun igaro direnean agiriak jaso ez badira, ez dira inolaz ere onartuko.

Horretarako, eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan postaz bidalitako proposamenik ez balego, epaimahaia eratzeko deia egingo da, hurrengo fasera zer lelo igaroko diren hautatu dezan.

Ideiak aukeratu ondoren, onartutakoei dei egingo zaie bigarren faseko aurreproiektua aurkeztu dezaten. Jakinarazpenetik hasita, e-postaz hautatutako leloek 3 asteko epea izango dute horretarako. Correosetik egindako bidalketetan ere, aurreko paragrafoetan azaldutakoa egingo da.

12. - EPAIMAHAIA

Honako hauexek izango dira epaimahaikideak:

Presidentetza

Titularra: Imanol Landa Jauregi (Getxoko alkate eta EUDELeke elkarteburua)

Ordezkoa: Ager Izagirre Loroño (Mungiako alkatea)

1. bokala

Titularra: Josune Irabien Marigorta (Amurrioko alkatea)

Ordezkoa: M^a Natividad López de Muniain Alzola (Elburgo/Burgeluko alkatea)

2. bokala

Titularra: Jose Antonio Santano Clavero (Irungo alkatea)

Ordezkoa: Mikel Torres Lorenzo (Portugaleteko alkatea)

3. bokala

Titularra: Eneko Maioz Ganboa (Orexako alkatea)

Ordezkoa: Garazi López de Etxezarreta Auzmendi (Errenteriako alkateordea)

4. bokala

Titularra: Mar Zabala Mardaras (EUDELen zuzendari nagusia)

Ordezkoa: Roberto Cañón Gorostiza (EUDELeke antolaketa burua)

5. bokala

Titularra: Xabier Zabala Zuazo (Mungiako Udaleko arkitektoa)

Ordezkoa: Juan Marco Lozano Rodríguez (Mungiako Udaleko arkitektoa)

6. bokala

Titularra: Matxalen Acasuso Atutxa (EHAEoko dekanoa) (EHAEoko arkitekto dekanoa)

Ordezkoa: Nerea Alonso Undabeitia (EHAEoko diruzaina) (EHAEoko arkitekto diruzaina)

7. bokala

Titularra: Arantxa Kintana San Vicente (EHAEO) (EHAEO-Bizkaiko arkitekto mahaikidea)

Ordezkoa: Irati Burgues Asteasu (EHAEO) (EHAEO-Bizkaiko arkitekto idazkaria)

Idazkaria (hitzarekin baina botorik gabe)

Titularra: Leire Fuente Bordagaray (EHAEoko arkitektoa)

Ordezkoa: Uxue Campo Múgica (EHAEoko aholkulari juridikoa)

Ebaluaziorako bilera guztietan, epaimahaikideen erdiak eta bat gehiago egon beharko dira beti, eta, horrez gain, ezinbestekoa izango da haien herenek arkitekto-titulua edukitzea. Presidentetzak kalitateko botoa izango du berdinketarik sortuz gero.

13. - PROPOSAMENEN IREKIERA

1. FASEA. IDEIEN LEHIAKETA



Proposamen guztiak benetan jaso ostean, bertan atxikitako agiri guztiak epaimahaikideen esku jarriko dira aztertu ditzaten.

Honako hauexek izango dira epaimahaiaren eginkizunak:

- Agiriak aztertzea eta jasotako lanak behin betiko onartzea.
- Agiriak aztertzean anonimatuari bete-betean eusten zaiola bermatzea.
- Honako arrazoi hauengatik onartu ez diren lanak gaitzesteko proposamen arrazoitua egitea eta aktan bertan azaltzea:
 - Epez kanpo edo oinarri hauetan zehaztutakoa kontuan hartu gabe aurkeztea.
 - Proposamenak balioesteko beste agiri ez aurkeztea.
 - Anonimatua haustea, edozein sistemaren bidez autoretza agerian jartzeagatik edo proposamengilearen nortasunaren adierazgarri diren elementu grafikoak aurkezteagatik.
 - Epaimahaikideak presionatzeko edozein saialdi egitea.
 - Lehiaketaren helburua ez betetzea.

Epaimahaiko idazkariak garatutako jarduketa guztien akta egingo du, eta eztabaidak erabat isilekoak izango dira epaimahaikideentzat.

Lan asko aurkeztu direnez, epea betetzerik ez balego, ebazpenerako beste egun baten berri emango da Kontratugilearen Profilean.

2. FASEA. AURREPROIEKTUA

Hautatutako taldeek aurreproiektuak aurkeztu dituztenean eta epaimahaiak haien proposamen teknikoa balioetsi duenean, epaimahaiaren ebazpenaren akta egin beharko da 2017ko irailerako, eta Kontratugilearen Profilean argitaratuko da.

Ebazpenaren oinarria den irizpen arrazoitua ere agertu beharko da, eta epaimahaikideek euren botoaren arrazoiak ere azaldu ahal izango dituzte aparte.

Epaimahaiaren erabakia jakindakoan, deialdia egiten duen erakundeak esleipena egingo du, eta arrazoitua izan beharko da epaimahaiaren proposamenarekin edo proposamenekin bat ez badator, SPKLTBko 187.8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

14. - BALIOESPENERAKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

PROPOSAMEN ARKITEKTONIKOA: 50 puntu. Honako hauxe balioetsiko da: proposamen arkitektonikoa, higiezinarekin daukan integrazio funtzional zein egiturazkoa eta bioeraikuntzarako ziurtatutako materialen erabilera, hau da, lehengai berriztagarrietatik energia gutxi behar duten prozesuen bidez lortutako materialak, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko asmoz. Horrez gain, erabileren zein eremuen banaketa, sarbidearen kontrola, komunikazioak eta eremu osagarriak ere egokiak diren balioetsiko da.

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA: 25 puntu. Eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetu eta baliabide naturalen kontsumoa gutxitzen duten irtenbide jasangarrien ezarpena balioetsiko da, Europako zuzentarauetan eraikin publikoetarako eta eremuen erabileraren arabera instalazio berritzaileen integrazioarako xedatutakoa kontuan hartuta.

BIDERAGARRITASUNA ETA FUNTZIONALITASUNA: 15 puntu. Proposamenean bertan, faktore ekonomikoak nahiz teknikoak eta proposatutako materialen artapena eta iraunkortasuna balioetsiko dira.

Aurreproiektuaren 2. fasean, hautatutako proposamenak aurkeztutakoan, lehen aipatutako irizpideak balioetsiko dira berriro, baita honako hauxe ere bai:

PREZIOA: 10 puntu. Puntu bat (1) emango da kontratuaren prezioan murriztutako %1 bakoitzeko; eta, gehienez ere, 10 puntu. Jaitsierarik eskaintzen ez duen lizitatzailleak 0 puntu izango du. Ez dira lizitazioaren oinarria gainditzen duten proposamen ekonomikoak onartuko.

15. – SARIAK

Ideien lehenengo fasean, 3 talde lehiatzaile hautatuko dira gutxienez; eta 5, gehienez. Guztiak aurreproiektuaren bigarren fasera igaroko dira, eta aurkeztutako aurreproiektuek 2.000,00na euroko sari ekonomikoa jasoko dute.

Pertsona edo enpresa irabazleak geroago jasoko duen ordainsariaren aurrerakin gisa jasoko du aipatutako zenbatekoa.

Aurrean aipatutako zenbatekoetan, ez da BEZ kontuan hartu, eta kasuan kasuko zerga-atxikipena ezarriko zaie. Kobratu ahal izateko, behin betiko argitaratu ostean lehiatzaileek jasotako sariaren faktura aurkeztu beharko diote deialdia egiten duen erakundeari, eta faktura hori aurkeztu osteko hurrengo 30 egunetan ordainduko zaie.

Lehiaketa esleitu gabe utzi ahal izango da salbuespenez, epaimahaiaren ustez saririk ematerik ez badago.

Lehenengo sarian, deialdia egiten duen erakundeak behar besteko konpromisoa hartuko du, proiektuaren idazketa eta obrako zuzendaritza publikitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatuzko eta, horrela, lehiaketa honi jarraipena emateko.

16. - KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren prezioa 75.000,00 eurokoa (BEZ gabe) izango da, gastu orokorrak, mozkin industrialak, kostu zuzenak nahiz zeharkakoak eta gainerako zergak barne hartuta.

BALIO ZENBATETSIA	BEZ	GUZTIRA
75.000,00 €	15.750,00 € (21%)	90.750,00 €

Idazketaren fasean, obren lizitazioan oinarri moduan erabiliko den betearazpenerako proiektuaren idazketa ez ezik, honako hauxe ere hartuko da kontuan: instalazioen

proiektu partzialen idazketa eta, beharrezkoak izanez gero, Jardueragatiko Lizentzia lortzeko proiektuen idazketa.

Obrako Zuzendaritzan, behar beste teknikarik parte hartuko dute, behar bezala garatu dadin:

- Obretako Zuzendaritza Fakultatiboa
- Obretako Zuzendaritza Teknikoa
- Proiektuaren zein obraren faseetako segurtasunaren nahiz osasunaren koordinazioa eta Segurtasun zein Osasun arloko Azterketaren idazketa
- Kalitatearen kontrola
- Kontratu honetan, jarduketako fase guztietako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa egokia kontrolatzeko, justifikatzeko eta ziurtatzeko eginkizun guztiak hartuko dira kontuan

17. - ORDAINBIDEA

Kontratazio-organoak aurkezpen-faseen proposamenean zehaztutako mugaegun bakoitzeko faktura aurkeztu osteko hurrengo 30 egunetan ordaindu beharko ditu ordainsariak, betiere, teknikari arduradunek onesten badute.

Ordainketan atzeratzeagatiko araubide juridikoari dagokionez, SPKLTBko 216. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Betearazpenerako proiektua 2017ko azaroaren 9ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko da.

Epe horretan deialdia egiten duen erakundeak enkargua kudeatzerik eta zehazterik ez balu edo, aukera-arrazoiengatik, ez betearazteko erabakia hartuko balu, jasotako sariaren zenbatekoaren erdiaren baliokidea den kalte-ordaina jasoko luke lehiaketako irabazleak.

Ondoren, enkargua eragotzi duten oztopoak desagertuko balira, lehiaketa honetako irabazleari esleितuko litzaioke, igarotako denbora edozein dela ere. Halakoetan, kalte-ordain moduan ordaindutako zenbatekoa kenduko da kontratuaren prezio guztitik.

Berari egotzi dakioken edozein arrazoiengatik lehenengo sariaren irabazleak kontratatzerik ez balu, ez luke kalte-ordainerako inolako eskubiderik izango, sariaren zenbateko bikoitza itzuli beharko luke eta deialdia egiten duen erakundea hurrengo sarituekin hasiko litzateke negoziatzen, proiektuaren xede osopeko kontratazioa ebazteko edo lehiaketa esleitu gabe uzteko.

18. - KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

Lehiaketako irabazleak proiektua idazteko eta obra zuzentzeko enkargua jasoko du.

Lehiaketari buruzko ebazpena emandakoan, proiektu irabazlearen egileei eskatuko zaie 10 egun naturaleko epean honako agiri hauek aurkezteko:

- Egileen edo, hala badagokio, legezko ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala edo baliokidea.

- Pertsona juridikoak badira, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketaren edo, hala badagokio, aldagetaren eskritura, ezarri beharreko merkataritza-legeriaren arabera eskakizun hori bete behar denean. Hala ez bada, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo jarduera arautzeko arauen berri ematen duen sorrera-egintza. Hala badagokio, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta. Era berean, lehiaketari begira ordezkaria dela egiaztatzen duen ahalordea ere aurkeztu beharko dute.
- Pertsonak (fisikoak edo juridikoak) Espainiakoak ez badira eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten herrialdeetako nazionalak badira, jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute kasuan kasuko erregistro profesional edo komertzialeko inskripzioaren bidez edo eremu bateratu horretan zerbitzuen kontratuetarako aurreikusitako ziurtagirien bitartez. Guztiak, gainera, EAEko hizkuntza ofizial batera itzulita egon beharko dira.
- Aurreko paragrafoan kontuan hartzen ez diren pertsonak badira, jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Espainiak estatu horretan daukan Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo tokian tokiko Kontsul Bulegoak egindako txostenaren bidez. Bertan, hain zuzen ere, tokiko erregistro profesional, komertzial edo antzekoan inskribatuta daudela adierazi beharko da edo, besterik ezean, kontratuko jardueren arloko tokiko trafikoa jardun ohi dutela.
- Munduko Merkataritza Erakundeko Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmeneko estatu sinatzaileak badira, Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioak hitzarmen horretako estatu sinatzailea dela egiaztatzeko egindako txostena ere aurkeztu beharko dute. Bestela, jatorrizko estatuak berak ere antzeko moduan Espainiako enpresek bertako kontratazio publikoan parte hartzea onartzen duela adierazten duen elkarrekotasun-txostena aurkeztu beharko dute.
- Sozietatea kasuan kasuko arkitektoen elkargoko erregistroan elkargotuta edo inskribatuta dagoela dioen ziurtagiria.
- Organo eskudunek Espainiako zerga-betebeharretan edo Gizarte Segurantzako edo ordezkari profesionalen betebeharretan egunean daudela adierazteko egindako ziurtagiri administratiboak. Izan ere, kontratua sinatzeko aurkeztu aurretiko hilabeteetan egin beharko dira gehienez ere. Betebehar horiek edo haietako batzuk bete behar ez badituzte, hori justifikatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- Arkitekto esleipendunak edo arkitektoen talde esleipendunak gutxienez honako hauxe eduki beharko du kontratua sinatzen duenean:
 - Gutxienez betearazpenerako proiektu bat idatzi eta 100 urte inguruko eraikin baten zaharberritze-lana zuzendu duen eta zuzkidura-ekipamendu baten betearazpenerako proiektu bat idatzi eta zuzendu duen arkitektoa.
 - Aseguru-erakundearen ziurtagiria, ezbeharreko eta urteko 600.000,00 euroko gutxienezko estaldura daukan erantzukizun zibileko poliza harpidetu dutela egiaztatzeko.

- Hala badagokio, ABEEren eraketa egiaztatu beharko dute eskritura publikoaren bidez, eta elkarte horri esleitutako IFK zein den adierazi beharko dute kontratua sinatu baino lehen. Edonola ere, elkartearen iraupena bat etorriko da kontratua amaitu arteko iraupenarekin.
-

19. - JABETZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualari buruzko azaroaren 11ko Legearen, kasuan kasuko aldaketan eta ezarri beharreko legezko gainerako xedapenen arabera arautuko da.

20. - JENDAURREAN IKUSGAI JARTZEA

Lehiaketa ebatzitakoan, aurkeztutako eta onartutako lan guztiak jendaurrean jarri ahal izango dira ikusgai, eta epealdi hori amaitu arte eutsi ahal izango zaie. Hautatuak izan diren eta ez diren parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie lanak jendaurrean ikusgai jarriko direla. Era berean, web bidez ere zabaldu ahal izango dira, eta modu eskusiboan manipulatu ahal izango dira haien tamaina txikitzeko eta hobeto nabigatzeko.

Jendaurrean ikusgai jartzeko epea amaitutakoan, enpresa lehiatzaileek onartutako lanak batu ahal izango dituzte hilabeteko epean, eta, hortik aurrera, lanok suntsitzeko erabakia hartu ahal izango du deialdia egiten duen erakundeak.

21. - LEHIAKETAREN ETENDURA

Etendura hori lehiaketaren bigarren fasean gertatuz gero, ebazpena eman baino lehen, lehiatzaileei egindako lanagatiko eta erabilitako materialengatiko kalte-ordaina ordainduko zaie, eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak kalte-ordain horien balio justua zein den zehaztuko du, arbitroa izango da-eta. Horretarako, astebeteko epean, ordura arte egindako lanak aurkeztu beharko dira Lehiaketako Idazkaritzan, etendurari buruzko erabakia jakinarazten denetik hasita. Epe hori igarotakoan, ez da inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik egongo. Kalte-ordainen batura orokorra ez da sarretarako aurreikusitako zenbatekoaren erdia baino handiagoa izango.

22. - PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan, ez dira prezioak berrikusiko, espedientean bertan egiaztatzen den bezala.

23. - BERMEAK

- a) Behin-behinekoa: ez da eskatuko.
- b) Behin betikoa: proiektua idazten duen enpresa edo pertsona esleipenduna, esleipenerako aurrekontuan %5 (BEZik gabe).

24.- KONTRATUAREN BETEARAZPENA

Kontratua bera kontratistaren arriskupean betearaziko da.



Kontratua betearazteko orduan, orri honetako klausulak eta, hala badagokio, espedientearekin lotutako zehaztapen teknikoak hartu beharko dira kontuan, EUDELen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean. Izan ere, idatziz zein ahoz erabiliko ditu ahalmen horiek.

Kontratataren edo haren menpeko pertsonen egintzen edo hutsegiteen erruz kontratuaren garapen egokia kolokan jartzen denean, EUDELe behar besteko neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, berriro ere behar bezala betearazten dela bermatu ahal izateko.

25. - KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Enpresak honako arlo hauetako xedapen guztiak bete beharko ditu: lanari buruzko legeria, gizarte-segurantza, hitzarmen kolektiboak, laneko arriskuen prebentzioa, laneko segurtasuna zein higiena eta zergak. Hori dela eta, EUDELe ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

26.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BETEARAZI BITARTEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK

Kontratista bera kontratua betearazteko garatu beharreko eragiketen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

27. - KONTRATUAREN ALDAKETAK

EUDELe interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango du kontratua, SPKLTBko 107. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, betiere, horren ondorioz lizitaziorako zein esleipenerako funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako usteko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

28. - PRESTAZIOAREN ONARPENA ETA BERMEALDIA

Kontratuaren helburu den prestazioa amaitutakoan, onarpenerako egintza formal eta positiboa egin beharko da.

Kontratu honen ezaugarriak kontuan hartuta, ez da aurreikusten bermealdia ezarriko denik.

29. - KONTRATISTARI EZ BETEARAZTEAGATIK EZARRITAKO ZEHAPENAK

Arau-hausteak.

Hona hemen lanak garatu bitartean enpresak egiten dituen arau-hausteen sailkapena:

Oso arau-hauste larriak:

EUDELeko Zuzendaritza Teknikoan zehaztutako dataren arabera, lanak bi aldiz edo gehiagotan atzeratzea.

Lanak ageriko irregulartasunaz garatzea.



EUDELen berriazko baimenik gabe zerbitzuak lagatzea, azpialokatzea edo eskualdatzea.

Zuzendaritza Teknikoak emandako jarraibideak ez betetzea.

Bi arau-hauste larri edo gehiago berriro egitea.

Arau-hauste larriak:

Lanen garapenean modu ez-sistematikoan atzeratzea.

Elkartek eskuragarri jarritako baliabide materialak eta azpiegitura behar ez bezala erabiltzea.

Enpresako langileak ez errespetatzea.

Bilera batera ez joatea.

Berriazko baimenik gabe komunikabideetara jotzea.

Behar beste baliabide pertsonal edo material ez erabiltzea.

Arau-hauste arinak:

Lehen aurreikusi ez diren gainerakoak.

Zehapenak.

Oso arau-hauste larriengatik: 1.000 €

Arau-hauste larriengatik: 500 €

Arau-hauste arinengatik: 100 €

Nolanahi ere, oso arau-hauste larriak gertatuz gero, EUDELek zehapenak ezartzeko edo kontratuaren amaierarako espedientea irekitzeko aukera izango du.

Eskumena.

Zuzendaritzaren ebazpenaren araberako txosten teknikoaren ondoren, arau-hauste arin eta larrietan; eta, esleipen-organoaren esku, oso arau-hauste larrietan, kontratistari entzuteko aukera eskaintzen duen espedientea izapidetu ostean.

Ordainketa.

Kontratistak 15 eguneko epean ordaindu beharko ditu, eta, epea igarotakoan, ordaindu gabe dauden fakturetatik kendu ahal izango da.

Kalteen erreklamazioa.

Zehapenak ezarri arren, EUDELi sorrarazitako kalte-galerak ere ordaindu beharko dira.

30. - KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK



Zerbitzuen kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 223. eta 308. artikuluetan zehaztutakoak izango dira.

31. - EUDELen ESKUMENAK

EUDELen eskumena izango da kontratua interpretatzea, betearazpenean sortutako zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua amaitzeko erabakia hartzea eta erabaki horren ondorioak zehaztea. Horretarako, honako hauexetan zehaztutako mugak, eskakizunak eta ondorioak hartuko ditu kontuan: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategina eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Araudi Orokorra.

Enpresak bermatu egin beharko du administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasunari eusten diola kontratua indarrean dagoen bitartean.

EUDELeK kontratuan aipatzen diren lanak ikuskatu eta zuzendu egingo ditu bere teknikarien bidez.

Enpresak bere zereginetan sortutako galeren, matxuren edo kalteen gaineko erantzukizuna izango du.

Enpresak ezin izango du kontratu honi buruz hitz egin komunikabideetan, EUDELeko Prentsa Sailaren berariazko baimenik ez badauka.

Enpresak egindako lan guztiak EUDELeK titularitatepekoak izango dira, eta egokitzat hartzen dituen termino zein baldintzetan erabili ahal izango ditu.

32. - NORBERAREN DATUEN BABESA

Kontratazio honen ondorioz, norberaren datuak bildu behar badira, SPKLTBko hogeita seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren ondorioz sortutako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari eta bere garapenerako arautegiari dagokienez.

A ERANSKINA. AGIRIEN EDUKIA

1. GUTUN-AZALA. AGIRIAK

APKLTBri buruzko Araudi Orokorreko 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, hona hemen zehatz-mehatz prozeduran parte hartzeko aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaria izanez gero, notarioaren ahalordea ere bai. Izan ere, erakunde horrek askietsi beharko du gutun-azal honetan bidalitako agiriak sailkatzeko prozesuan.

b) Lizitatzalea pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketaren edo, hala badagokio, aldaketaren eskritura, baita identifikazio fiskalerako zenbakia ere, ezarri beharreko merkataritza-legeriaren arabera inskripzio hori beharrezkoa denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna duela egiaztatu beharko du eraketaren eskritura edo agiria, estatutuen edo jarduera arautzeko arauen berri ematen duen sorrera-egintzaren bitartez. Hala badagokio, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

Enpresariak Espainiakoak ez badira eta Europar Batasuneko estatu kideetako herraldeetakoak badira, finkatutako daudeneko estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, zinpeko adierazpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, ezarri beharreko xedapen bateratuen arabera.

Gainerako enpresari atzeritarrek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute Espainiak estatu horretan daukan Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo enpresaren helbideari dagokion lurralde-eremuko Kontsul Bulegoak egindako txostenaren bidez.

c) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeko zehaztutako debekupean ez dagoela dioen erantzukizunpeko berriazko adierazpena. Bertan, hain zuzen ere, berriaz adierazi beharko du indarreko xedapenen arabera zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela, betiere, azken bi inguruabar horiek egiaztatzeko ziurtagiriak aurkezten ez badira.

d) EJZn kontratuaren helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela adierazten duen egiaztagiria. Horretarako, alta bera aurkeztu beharko da, indarreko ekitaldikoa izanez gero; eta EJZko azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Bi suposamenduetan, gainera, zerga horretako matrikulan baja hartu ez duela azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

e) Lizitatzalearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoaren edo profesionalaren egiaztagiria, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateginean zehaztutako sistemen bidez.

Kaudimenaren egiaztagiriaren osagarri, lizitatzaleek euren eskaintzetan zehaztutako baliabide material edo pertsonalen egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira, kontratuaren arabera zerga-betebeharra izango delako kontratuan bertan kontuan hartzea. Hori dela eta, SPKLTBko 64.2. artikuluan aurreikusitakoaren



babespean, betebeharrori betearazten ez bada, kontratua bera amaitu ahal izango da 223. f) artikuluan azaldutako ondorioetarako.

f) Zenbait enpresarik lizitazioan bertan Aldi Baterako Enpresa Elkarte moduan parte hartzen badute, osagai dituen enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuen arabera. Halaber, ABEE bera modu formalean eratzeko behar besteko konpromisoa ere hartu beharko dute, esleipendun aukeratuak izanez gero. Era berean, proposamenean bertan ere adierazi beharko dute helburuaren zer zati garatuko lukeen ABEEko kide bakoitzak, guztiak behar besteko kaudimena dutela zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Enpresa atzeritarrentzat, kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegi-tako jurisdikzioari men egingo diotela azaltzen duen adierazpena. Era berean, hala badagokio, lizitatu-zaileari legokiokeen foru jurisdikzional atzeritarrari ere uko egin beharko diote.

h) Prozedura honen ondorioz sortutako jakinarazpenak bidaltzeko erabiliko den posta elektronikoa-ren helbidea, SPKLTBko 151.4. artikuluan xedatutakoaren eta aurreikusitako ondorioen arabera.

Proposamenak klausula honetan (a), b), c), d), e), f) eta g) letraduna) aipatutako agiriak barik aurkeztu ahal izango dira, baina, halakoetan, kontratua sinatzen duenean aurkeztu beharko ditu esleipendunak.

Era berean, aurreko a), b) eta c) letretan zehaztutako inguruabarrak honako hauexen ziurtagiriaren bidez ere egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala, Estatuko Lizitatu-zaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala edo sailkapenerako ziurtagiri bateratua, SPKLTBko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ziurtagiri horrekin batera, lizitatu-zailearen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, ziurtagiri horretan islatutako inguruabarrak aldatu ez direla azaltzeko.

Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria modu elektronikoa-n egin ahal izango da.

Eskatutako agiri-oren originalak edo EUDELe-k edo notarioak behar bezala erkatutako edo benetakotutako kopiak aurkeztu ahal izango dira. Horrez gain, agiri horiek fotokopia bakunean ere aurkeztu ahal izango dira, baina, halakoetan, esleipendunak fotokopia horien egiazkotasuna egiaztatu beharko du kontratua sinatu baino lehen, eta, horretarako, kasuan kasuko originalak aurkeztu beharko ditu.



B ERANSKINA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

(Pertsona fisikoak izanez gero) jaunak/andreak, arkitektoa denak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak,

(Pertsona juridikoa edo ABEE izanez gero) jaunak/andreak, arkitektoa denak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak, helbidea daukan enpresaren izenean eta ordezkari moduan (..... IFZ duen sozietatea edo ABEE),

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU:

.....(e)k deitutako “.....” lehiaketaren jakitun, berak edo taldeak edo ordezkatzan duen enpresak behar besteko gaitasuna dauka parte hartzeko, eta lehiaketa hori arautzen duten oinarriak ezagutzen ditu. Hori dela eta, bere partaidetza onartu dadila eskatzen du.

PROPOSAMENAREN LELOA:

Jakinazpenetarako e-posta anonimoa eta leloarekin lotutakoa (adibidez, lema@gmail.com) :

.....(e)n halaxe agertu dadin,(e)rako prozedura honetan parte hartzeko egiten dut adierazpen hau.

.....(e)n, 20...(e)koren(e)(a)n.

Sinadura (lizitatzaillearena edo sozietateko edo ABEEko ordezkariarena)

.....



C ERANSKINA. ABEE ERATZEKO EREDUA

..... arkitektoak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak

..... arkitektoak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak

..... arkitektoak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak

(Sozietatea izanez gero, sozietatearen eta legezko ordezkariaren datuak ere jarri beharko dira)

HONAKO HAUXE ERABAKITZEN DUTE

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako enpresa-elkartea eratuko dute,(e)k(e)rako deitutako prozeduran parte hartzeko. Era berean, elkarre hori eskritura publikoan gauzatzeko konpromisoa ere hartzen dute, esleipendunak izanez gero.

Halaber, kide bakoitzaren partaidetza(e)koa izango dela eta elkarteko ordezkaria izango dela ere adierazten dute.

Halaxe agertu dadin,(e)n sinatzen dute, 20...(e)koren(e)ko prozeduran parte hartzeko asmoz.

Sinadura (ABEEko kide guztiena)



**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**

D ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

(Pertsona fisikoak izanez gero) jaunak/andreak, arkitektoa denak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak,

(Pertsona juridikoa edo ABEE izanez gero) jaunak/andreak, arkitektoa denak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak, helbidea daukan enpresaren izenean eta ordezkari moduan (..... IFZ duen sozietatea edo ABEE),

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU:

Proposatutako lanetako zuzendariak edo zuzendariak arkitekto-titulua dute, eta legezko behar besteko ahalmena ere badute, lanbide hori Espainiako lurraldean garatu ahal izateko.

.....(e)n halaxe agertu dadin,(e)rako prozedura honetan parte hartzeko egiten dut adierazpen hau.

.....(e)n, 20... (e)koren(e)(a)n.

Sinadura (lizitatzaillearena edo sozietateko edo ABEEko ordezkariarena)

.....



E ERANSKINA. LANEKO HITZARMEN KOLEKTIBOA

(Pertsona fisikoak izanez gero) jaunak/andreak, arkitektoa denak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak,

(Pertsona juridikoa edo ABEE izanez gero) jaunak/andreak, arkitektoa denak, IFZ duenak, zenbakidun elkargokidea denak eta helbidea duenak, helbidea daukan enpresaren izenean eta ordezkari moduan (..... IFZ duen sozietatea edo ABEE),

Lizitatuzaileek kontratuaren helburu den jarduera garatzen duten langileei zer hitzarmen kolektibo ezarriko zaien adierazi beharko dute, esleipendun aukeratuak izanez gero. Horrez gain, lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ere aurkeztu beharko dute, kontratua esleitutakoan langileei benetan ezarritakoak izango dira-eta. Gainera, ordaindu beharreko soldata ez da inolaz ere hura baino txikiagoa izango.

Enpresa lizitatuzaileak honako hauexetan zehaztutako printzipioak eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuko du: Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako onartutako 4/2005 Legea eta Emakumeen zein Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa.

Horrez gain, agiri guztietan, publizitatean, irudietan edo materialetan, ez da hizkuntza sexistarik erabiliko, emakumeen bereizkeriazko irudiak edo estereotipo sexistak saihestuko dira eta honako balio hauexetan oinarritutako irudia sustatuko da: berdintasuna, agerpen orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta era guztietako zereginak zein genero-nortasunak.

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU:

Agiri hauek aurkezteko orduan, goian adierazitako enpresak honako lan-hitzarmen kolektibo hau ezartzen die langileei:

Enpresak behar besteko konpromisoa hartzen du, EUDDEL-en ustez adierazpen hori egiazkoa dela egiaztatze beharrezkoak diren datu guztiak emateko.

.....(e)n halaxe agertu dadin,(e)rako prozedura honetan parte hartzeko egiten dut adierazpen hau.

.....(e)n, 20...(e)koren(e)(a)n.

Sinadura (lizitatuzailearena edo sozietateko edo ABEEko ordezkariarena)

.....

F ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Nik, honako LELOAREN titularrak:

ZERA ADIERAZTEN DUT NIRE ENTZUKIZUNPEAN:

I.- "....." LEHIAKETAKO lizitazioari buruzko iragarkiaren berri daukat.

II.- Era berean, kontratu hau arautu behar duten oinarriak eta gainerako agiriak ere ezagutzen ditut, berariaz hartzen ditu bere gain eta bete-betean men egiten die.

III.- Ordezkatzen duen enpresak indarreko arautegian irekierarako, instalaziorako eta funtzionamendurako eskatutako betebeharrak eta eskakizun guztiak betetzen ditu.

IV.- Eskaintza honetako prestazioari dagokionez, garatzea proposatzen du, bere prezioan kontzeptu guztiak kontuan hartzen direla ulertzen du, gastuak, edozein zerga-ariotako tasak zein arielak eta kontratistaren mozkin industrialak barne, eta zenbakiz nahiz letraz adierazi beharrekoa da ZENBATEKOA:

PREZIOA (guztira eskainitako zenbatekoa ez da 75.000,00 eurotik gorakoa izango) euro (..... €)
%21eko BEZ euro (..... €)
GUZTIRA	GUZTIRA euro (..... €)

.....(e)n, 2017koren(e)(a)n